

PROSTITUZIOA

Premiak bultzatuta, baina, aukeran, sexu lanen bidea ibiltzen dutenen argazkia

Beharrak bultzatuta baina eurek erabakita hartzen dute sexu langile gehienek prostituzioaren bidea. Hala aitortzen dute kolektibo hau gertutik ezagutu eta Euskal Herrian sexu langileekin lan egiten duten elkarteek. Elkar-teok ez dute sexu esplotazioa dagoenik ukatzen, baina, euren esperientziaren arabera, emakumeen salerosketa ez da batere ohikoa gure artean.

Gurean sexu lanetan jarduten dutenen erradiografia egiten ahalegindu gara. Horretarako, Gipuzkoako Aukera programara, Arabako Hiesaren Aurkako Batzordera, Nafarroako Munduko Medikuek elkartera eta Bizkaian lan egiten duen Askabide elkartera gerturatu gara.

Seme-alabak Latinoamerikan utzita –Brasil eta Paraguain batik bat– gurera etortzen den 25 eta 40 urte arteko emakumearena da Euskal Herrian prostituzioan aritzen den sexu langilearen profil zabalduena. Arabako Hiesaren Aurkako Batzordeak 2013an jasotako datuek argiki erakusten dute hori: sexu lanetan aritzen ziren %80 ama ziren eta %60k jatorriko herrian zituen seme-alabak.

PISUAK, KLUBAK ETA KALEA LANTOKI

Denetarik dago, noski. Hala ohartarazi nahi izan dute Aukerako Sonia Vegak eta Shandra Martinezek, eta prostituzioa emakume biologikoen langintza soilik ez dela argitu digute; «gizon eta transexualak badaude eta uste duguna baino dezente gehiago egiten dute lan», gaineratu du Vegak.

Pisuak, klubak eta kalea dira sexu langileen lantokiak. Arabako portzentajeen arabera, gainera, segida horretan jarduten dute: %63k etxeetan, %34k klubetan eta soilik %3k kalean. Gainerako herrialdeetan ere datuak oso antzekoak dira.

Bolondreski eta modu helduan sexu lanetan aritzen diren herritarrei laguntzen die Aukera egitasmoak. Iaz 1.157 lagunekin aritu ziren lanean, eta gehien-tsuenak, denak ez esatearren,

 **JENDARTEA** / oihana.llorente@gaur8.info

Astelehenean da Sexu Langileen Nazioarteko Eguna. Aitzakia horrekin, gurean sexu lanetan jarduten dutenen erradiografia egiten ahalegindu gara, eta, horretarako, sexu langileak eskutik hartuta lan egiten duten elkarteetara jo dugu. Jendartean prostituzioaren inguruan hedatutako ikuspegi itxia zabaltzen saiatzen dira guztiak.

eurek erabakita ari ziren lanean. Sexu langileak sexuaren industrian bortxaz sartzen diren ustea, dirudienez, ilunegi ikusten dugun ofizio honi egozten dizkiogun beste aurreiritzi horietako bat baino ez da.

Askabidekoek argi utzi nahi dute prostituzioaren gainean dagoen guztia estimazioa dela, inork ez baitu datu edo errolda ofizialik. Prostituzioa, baina, denetarik hartzen duen saski-naskia dela onartuta, emakume salerosketa edota esplotazioa egon daitekeenik ez dute ukatzen,

eguneroko kontua ez dela nabarmenduta betiere. Are gehiago, kasuren batekin topo ere egin izan dute; «baina lan egiten dugun sexu langile kopuruarekin alderatuta, oso sinbolikoa da kopuru hori», gaineratu dute.

Emakumeen salerosketaz ari garenean, edozein eremutan bortxaz behartuta lanean diharduen pertsonaz ari gara. Euskal Herrian sexu langileekin ari diren elkarte guztiak emakumeen salerosketaren aurka daude, noski, baina horren aurka ekiteko legeak egon badaudela eta

horiek bete behar direla ekarri dute gogora Aukerakoek. «Prostituzioari lotutako ezaugarria dela zabaldu arren, jakina da nekazaritzan eta ehungintzan ere badagoela salerosketa hori, beraz, denean ekin behar da legea eskuan», nabarmendu dute.

Aukerakoen ustez, gainera, emakumeen salerosketa prozesu migratzailearekin nahasten da maiz: «Gurera etortzeko zorpetu egiten dira, familiarekin edo bestelako eragileekin, eta, noski, dirua behar dute eskutatuko itzultzeko. Gu ere, baina, hipotekekin zorpetzen gara eta hor ez dugu inolako salerosketarik ikusten!».

Behartuta lan egiten duten horiek bizi duten egoera salatzearen beldur direla defendatzen du Nafarroako Munduko Medikuek elkartearen laguntzen duen Maite Garciak. Haren ustez, sexu langileei zuzendutako programetara iristeko zailtasun handiak dituzte salerosketaren ondorio diren emakumeak, eta, iritsita ere, bizi duten egoera gogorra aitortzen ez dutela deritzo Garciak.

Bilboko San Frantzisko
auzoan dagoen klub bateko
aspaldiko irudia.
Luis JAUREGILATZO |
ARGAZKI PRESS

